

LABek, langileen indarrari esker, EAEko hezkuntza publikoko irakasleen hitzarmena sinatu du 15 urteren ondoren

LABek lortu du Jaurilaritzak hasierako proposamenean jarri ez dituen baliabideak adostea euskalduntzerako, aniztasunari eta inklusioari erantzuteko eta hezkidetzarako, eta baita, azken 15 urtetan lehen aldiz, soldatak bertan adostea ere.

Bederatzi greba egun eta mobilizazio andanak eman digun indarraz baliatuta, gaur hiru mahai negoziatzaile egin ondoren, azkenean Hezkuntza Saila mugiaraztea eta akordio on bat adostea lortu dugu. Horrela, orain hilabete batzuk ezinezkoa zena akordio arautzailean (lan hitzarmenean) jasotzea lortu du LABek.

Irakasleen ordezkartzaren gehiengoak sinatu duen akordio arautzailean, langileon borrokaren bidez, lortu ditugu hezkuntza kalitatea hobetzeko eskatzen genituen baliabideak, lan baldintzak hobetzea, lan zamak arintzea, soldataren igoera, ordezkoren udako kobraketa, edoskitzea luzatzea, bitartekotasun tasa %5ean kokatzea edo gazteberritzerako neurriak.

Hezkuntza Sailak komunikabideetan hainbatetan adierazi duen arren hezkuntza kalitatean hobekuntzak proposatuko zituela, 12etan eta 15:30ean egin diren mahai negoziatzaileetara ez du horren inguruko baliabide zehatzik ekarri. Soldaten eztabaida izan da negoziazioen erdigunean jarri duena, komunikabideetan baliabideak gehituko zituela esaten zuen bitartean.

Azkenean, borrokaren bitartez, LABek lortu du baliabide zehatzak 22:00etako mahai negoziatzaileara eramatea eta akordio arautzailean jasotzea, 2022ko maiatzaren 26an sinatu zen plantillak esleitzeko irizpideak eguneratuz eta hobetuz. Hauek dira lortu ditugun baliabideetako batzuk:

- Hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileak. Hezkuntza konplexutasun indize oso altuko eta altuko ikastetxeetarako: 15 talde arte, 0,5 jardunaldi; 16 taldetik aurrera, jardunaldi 1. Gainerako ikastetxeetarako irakasleak hurrengo irizpideen arabera: euskarazko hizkuntza-gaitasunaren ikastetxearen barne-ebaluazioko emaitzak, ikastetxeak euskarazko hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan egindako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak eta testuinguru soziolinguistikoa. 2025-26 ikasturtean pilotaje bat hasiko da gutxienez HKI altu eta oso altuko 10 ikastetxetan, 2026-27 ikasturtean HKI altu eta oso altuko zentroetara zabalduko da eta 2027-28 ikasturtetan gainontzeko zentro guztietara. Gure kalkuluen arabera, 350 irakasletik gora.
- EUSLE programa Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara zabalduko da eta HIPI eta EUSLE baliabide gehiago jarriko dira. 2025-26 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.
- Hezkuntza Konplexutasun Indizeko baliabideak gehitzea.
- Pedagogia Terapeutiko irakasle gehiago, aholkulari eta orientatzaile gehigarriak eta Entzumen eta Hizkuntzako ratioen jaitsiera.
- Zuzendaritza taldeetarako baliabide gehigarriak.

- Ongizate eta Babeserako koordinatzaileak, besteak beste, hezkidetza lantzeko ere baliagarriak izango direnak.

Galdutako erosahalmena berreskuratze bidean jartzeko, aldiz, EAEko funtzio publikoan azken 15 urtetan lehen aldiz, soldatak bertan adostea lortu dugu, % 7ko soldata igoera adostuz irakasle guztientzat. Ikasturteka horrela gauzatuko lirateke igoerak: 2025-26 ikasturte hasieratik % 2koa, 2026-27an % 2,5ekoa eta 2027-28an %2,5ekoa.

Erretiro adina aurreratzeko formula adostu da, 18 hilabetez aurreratzeko aukera jasoz 60 urtetik erretiro adinera bitarteko jardunaldi murriztuak pilatuz. Denbora tarte horretan, urte eta hiru hilabetez zuzenean etxera joan ahalko dira irakasleak, eta gainerako hiru hilabeteetan zuzeneko arretarako eskolarik eman beharrik ez dute izango.

Horrez gain, enplegua egonkortuko da, LABek 2023ko ekainaren 1ean akordio laboralean sinatutakoari esker. Izan ere, behin-behinekotasun tasa %5etik behera kokatuko da, eta oposaketa eredua negoziatzeko aukera jasoko da.

Lan-zamei dagokienez, irakastorduak jaiste adostu da. Haur eta Lehen Hezkuntzan 21 ordutara, 22 izango dira gehienez 25-26 ikasturtean eta 21 izango dira 26-27 ikasturtetik aurrera. Bigarren Hezkuntzako araubide bereziko ikasketak eta Lanbide Heziketako irakasleek 17 eskola-ordu emango dituzte gehienez, Hedatze edo izaera analogoko programak barne.

LAB sindikatuak, EAEko hezkuntza publikoko lehen indarra duenak, lortu du hezkuntza publikoko kolektibo guztietan lan hitzarmenak adostea. Irakasle funtzionarioetan sinatu den azken akordio honek eskola publikoko irakasleen lan baldintzak hobetzeaz gain, ikasleei ematen zaien hezkuntza kalitatea hobetzea lortu du.

Bukatzeko, LABek adierazten du maiatzaren 12tik 16ra deituriko grebak zein biharko egunez hiriburuetan deituriko hezkuntza komunitate osoaren mobilizazioak bertan behera uzten dituela, lan-hitzarmen ona adostea lortu dugulako. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbateko mobilizazioekin bat egin duzuen hezkuntza komunitateko kide eta eragile guztioi; horrek ere akordiorako indar handia eman digu.

Aurrerantzean, hezkuntza komunitatearekin batera, eskola publikoa baliabide gehiagoz hornitzeko borrokan jarraituko dugu. Euskal Eskola Publiko Komunitarioan bidean beste urrats bat egin dugu. Zorionak grebalari guztiei!

Borrokak merezi du! Gora langileon borroka!